


Hau Hau

1. zenbakia

Hau Pittu Hau Euskelaren Konpartsarren aldizkaria 2001.ko uztaila

ITZULI GARETE!



Bueltatu gara, HPHren paperezko adarrak bizi da!

Benetan garrantzia duten berriei dagokien seriotasuna emanten dion hilabetekarian lanera bueltatu garete zuon torturarako. Heldu kurbetan.

“Lana herriaren opioa da” dio gure kamarada Morok, eta horregatik gaude denok jaien zain eta muntaian parte hartzeko prest, ezta?

Baina ez gara bueltatzen garen bakarrak, horregatik gonbidatu dugu Pepe Rei, portadara. HauHau-a ez da Ardi Beltzaren oinordekoa, ezta izan nahi ere, HauHau-a gure Korana da, Mari jaia Jainkosa bakarra eta Pittu bere profeta.

Eta Pepe hona gonbidatzen dugun moduan, zuok konpartsakideok, jakin ezazue Ekainak 12an Morga tabernan egingo den Asanblada Orokorreara gonbidatuta zaudetela. Jaietan ondo pasatzeko gogoz? Orduan ondo presta dezagun!

Dedokrazia zapaltzailea gaindituz: Orditasuna!

berriak

Sarean
gaude




www.haupittuhau.org da inbentoaren izena. Globalizazioak ez omen dauka atzera biderik, hortaz guk eskapada palante ta web gunea jolasean aritzeko. Jonek dio Garzonek ezin duela muturra sartu oso segurua delako, baina ez pasatu mendeku txikietan ECHELON eta ENFOPOL hortik daudela eta ez dira konpartsakoak, zuek jakingo duzue. Gora ZiberMarijaia!

Lokal aldaketa

Ez zenekiela lokal aldaketa zegoenik? Inork ez zintuela abisatu laguntzeko? BilboRock non dagoen ez zenekiela? Mobila oporretan joan zitzaizula?

Ez kezkatu, gu ere ez ginen joan; "Lana herriaren opioa da" Vladimir-ek esaten duen legez. Dena den ez kezkatu, abuztu aldean eskakeatzeko beste aukera paregabea izangu duzue eta. Oharra: Non dago Inigitoren ordenadorea?



Egin klik hemen turno bat eskatzeko

Skakeing-aren inguruko I. ihardunaldiak

"Skakeing-aren inguruko I. ihardunaldiak" egingo dira Bilboko jaietako aurreko astean, pisuko aldaketan egon ez ginenontzat. Gaia: Muntzia.

Ihardunaldi hauetan parte hartuko dutenen artean hizlari hauek egongo dira:

Jon O'voy, Nick Ezdackit, eta abar.
Lekua: Egoitza berrian.
Pontxe eta pastelak.



Asamblada

Hau seriotan!
Ekainak 12 Morga

Marijaiaren oinordekoa,
kamisetaren kolore aldaketa,
txosnan alkoholik ez saltzea,
Tintigorriekin fusioa, pisuan
lo egiteko turnoak... guzti hau
erabakitzeko zure presentzia
ezinbestekoa da! 20:00

Labur Labur

Aste Nagusirako
motoreak berotzen

Ez da broma lagunok,
2001eko Aste Nagusia
gainean dugula, eta
marrazkiloa juerga gogoz
esnatu zaigu. Txosnaren
dekorazioa aurten
konkursoan erabaki dugu,
gutariko asko oposaketetan
ala? Zorionak Pitturi berak
aurkeztutakoa onena eta
txarrena izan baita,
badakizue egun
eguzkitsuetan abstentzioak
goraka egiten duela.

Kolditok lotu digu
dagoeneko kontzertu
programazioa, elefante
trikijaleei aurea hartuz
aurten ere (Maixa 22 - Itziar
19). Rock inteligentea
omen da sorpresa, jaietako
3 egun eta gero ulertzeko
gai izango al gara?

Hori bai, etzazu ahastu zure
tiketa eskatzea
marroixoren bat jateko,
Txosna Menua hau da eta,
ez solomoa piperrekin.

ekitaldiak

Konpartsero eguna Uztailak 21

Batzuetan bero, besteetan konpartsero. Zure eguna badatorrela! Ez, San Martina ez, konpartsero eguna. Badakizu, Atilarena egitea Arenalean, taldeak ematen duen anonimitateak babestuta.

11:00 Gastronomía eta Artisautza Azoka ireki.

11:30 Plaza zirkularretik erraldoi, gaiteroak, zanpantzarrak, buruhandi, gargantuaren, etabarren irteera.

12:00 Arenalean geraldia eta erraldioen dantzak.

12:00 Paella Lehiaketa, hasiera.

12:30 Erromeria

14:30 Paella lehiaketaren amaiera eta sari banaketa.

15:00 Bazkarri herrikoia

16:00 Erromeria



hau dun hau erromeria!

Mendeku txiki!

Erregea txapeldun ordain ez da sekulan inposatu. Badakizue doktrina berria, abertzaleak naziak dira, nazien burua Hitler zen, Hitlerren laguna Franko zen eta Frankok erregea ipinizuen, beraz erregea abertzalea da. **Atzorra eta legatza zulirik al dirau???** Azkenaldia honetan legatza bai ikusten dut bere paperean baina atzorra nahiko burumakur dabil, ea ialetan zorrozten garen, **Kanpi matxo man** matxo matxo man taralalala, zu zara gure matxo man. **Pirriki x Itu** lo Pirriki zelako tranaka itu rena, zurea zer da, enbidia edo amodioa?? **Itzultzeaz dago** dardarka ipini, hau...hau itzuliko da eta, zuek guztiak arriskupean. **MENDEKUAK EGONGO DIRA. Otsoa datorrela, otsoa datorrela...** Beti Hau...Hau itzuliko denaren mehatsuan, nik ez dut sinuzien ikusten ikusi arte. Entzun beharko dituz berriaz Pittu, lurgi, Itigo eta abar — alperren aitzakiak. **BALDIN BADATOR: ZAIN GAUDE ETA,** (sic.) <- Ikusi eta sinetzi edegabea! **Jon Euskaltegira!** (edo Asterixekin).